



Murgoitio Beña

etxebizitza

Aldacrak: Beña / Sanjuangoa
Ahozkoa: Bēñekue / Bēña

“... la casería rústica titulada Murgoitio Beña... radicante en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz [Cofradía de Murgoitio], que ocupa una planta solar de noventa y un estados superficiales, y su antusano y demás terreno libre que está frente de la casa, ciento veinte y seis estados, que hacen doscientos diez y siete estados de cabida...”
DJE 1/102 or. (1864)



43° 9' 42"

2° 33' 50"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Baserri honen inguruko lehen aipamena 1704koa da: *Murgueytio de Yuso*. Done Joanes ermitaren inguruan kokatzen da, eta mendeetan zehar, izenak hainbat aldaera izan ditu, besteak beste: *Murgueytio Vēña* 1746ko su-errolan, *Murgoitio Beña* 1825eko polizia-errolan, eta *Sanjuangua eta Beña*. XX. mendean zehar, *Beña* izan da erabilitako izena, eta auzotarrek ere horrela ezagutzen dute baserria. Jatorrian, egungo eraikina XX. mende hasieran eraiki zen, jasotako informazioaren arabera, lehenbiziko eraikinaren teilatua etxearen ezker aldeko soroaren altueran hasten zen, eta, beraz, ardatz-obra aprobetxatu zituzten baserriari altuera gehiago emateko. Aurrealdean beste etxea dago, *Beñarnaga* (1865) eta *Beña accesoria* (1910-1967) izenez ezagutu izan dena. Gaur egun, bertakoek *Beñandikue* esaten diote (**Ikus Beñandikoa**).

XIX. mende amaieran edo XX. mende hasieran berreraikitako baserria da, bi isurkitakoa, eta oraindik oso ondo susmatzen zaizkio etxe zaharraren aztarnak. Oinarrian, XVIII. mendean Berriz inguruan zabaldu zen tipologia dugu, *Etxanoeta* (**Ikus Etxanoeta**) etxean antzeman daitekeena, esaterako. Pisu bat gehiago eraiki zutenean, aukera eduki zuten leihoak handitzeko eta erdiko ordez balkoiak zabalitzeko. Bestalde, fatxada lau ardatzen arabera ordenatzen da: alboetan, bana eta erdian, bina, arkuaren gainean. Nabarmentzekoak dira sarrerako arkuaren kasetoiak eta ertzetako harri koloretsuaren eta horma zuriaren arteko kontraste aparta.

toponimia

Murgotio auzo-izenaz eta Beña toponimoaz osatutako esanahi iluneko leku izena dugu hau. Auzo-izenaren kasuan, agian, lehenengo osagaia burgu izan liteke eta bigarrena goiti; baina azalpen horrek alde asko uzten ditu argitzeke. Beña izenari dagokiola, Beñaran dugu Albiztur herrian eta Mitxelenak behe hitzarekin lotu zuen. Hori posiblea litzateke etxe hau 1704ko su-erroldean Murgueytio de Yuso ("Beheko Murgoitio", alegia) moduan ageri baita. Ahoz erabiltzen den Sanjuango izenak ondoko basilizari egiten dio erreferentzia, Done Joanes Bataiatzaileari baitago eskainia.



Cofradia de Murqueytio.

1. Casa de Murqueytio de Iuso de Antonia de Uribe, Viue en ella, y es foguera mayor.
1. Casa de Murqueytio de Iuso, de Pedro de Murqueytio, Viue en ella y es foguera mayor.
1. Casa de Arroyta Juregui de Martin de Arroyta Juregui Viue en ella, y es foguera mayor.
1. Casa de Arroyta de Antonia de Villareal Viue en ella, y es foguera mayor.
1. Casa de Arroyta Onaindia de Martin de Arroyta Onaindia Viue en ella, y es foguera mayor.
1. Casa de Loysate de Juan de Loysate Viue en ella foguera mayor.
1. Casa de Echanoeta de Martin de Saxebe de Echanoeta, Viue en ella, y es foguera mayor.
1. Casa de Gomendio Viruti de Juan de Gomendio Viruti, Viue en ella, y es foguera mayor.
1. Casa de Gomendio, de Dr. Pedro de Madariaga Viue en ella y es foguera mayor.
- 1/2 Casa de Gomendio Echazarria de Pedro de Abaytua Viue en ella Pedro de Amocha, y es foguera menor.
1. Casa de Niquen de Maria de Niquen Viue en ella foguera entera.
- 1/2 Casa de Echechubarria de Dom. de Lurtua Viue en ella y es media foguera.
- 1/2 Casa de Solaburu de Domingo de Ibarra, Viue en ella, y es media foguera.
- 1/4 Casa de Echachua esta ca yda, y sus tierras andan en zenta, quarta parte de foguera.
- 1/4 Casa de Zelayeta de Dom. de Zelayeta, Viue en ella, y es quarta foguera.
- 1/4 Casa de Zelayeta de Iuso de Juan de Niquen Viue en ella, y es quarta foguera.